




Ayuntamiento de Berriozar
Berriozarko Udala



Servicio de Igualdad
Berdintasun Zerbitzua

III PLAN PARA LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES DE BERRIOZAR

BERRIOZARKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III PLANA (2016-2023)

Asistencia técnica-Laguntza Teknikoa:

equala

AURKIBIDEA

1. AURKEZPENA.....	3
2. SARRERA	5
3. BERDINTASUNERAKO III.PLANAREN METODOLOGIA	7
4. BERDINTASUN PLANAREN EGITURA.....	8
5. ESKU HARTZE EREMUAK.....	13
6. MARTXAN JARRI, JARRAIPENA ETA EBALUAKETA EGITEKO SISTEMA	56
7. ERANSKINAK	59

Berriozarko Udaleko 2016ko urtarrilaren 27ko Osoko Bilkuran onartua.

Nafarroako Berdintasunerako Institutuak lagunduta.



1. AURKEZPENA

Berriozarko Udalak, berdintasunean bizi den gizarte bat lortzeko lanean jarraitzeagatik apustua egiten du, gizarte justu eta demokratikoa, zeinetan emakumeen papera ez dadin gutxietsi emakumeak izateagatik.

Berdintasun Plan honek, bizitza sozial eta ekonomikoan, lan arloan, kulturean eta politikoa emakumeen parte hartzearen sustapena du helburu. Bai sexuarengatik diskriminazioari aurre egiteko neurriak, baita udal politiketan zeharkakotasunaren oinarria eraginkorra egiteko ere. Emakume eta gizonen artean eskubide eta aukera berdinak izan beharko genituzkelaren inguruan, herritarrok sentibilizatzea ahaztu gabe; sexuarengatik ematen diren diskriminazioak gaitzetsiko dituen gizarte bultzatuz, emakumeak lan munduan sartu daitezela lagundu, formakuntza eta heziketa burutu, pertsonen zaintzen parekidetasunerako sentibilizazioa egin, lan bizitza, familiarra eta pertsonala kontziliatuz. Berdintasunerako bidean gizaki guztien inplikazioa suposatzen duen aurrerapausoa litzakeen, edozein motatako politiken aldaketa garatuz.

Aukera berdintasunari dagokionez, udalerrri honetako emakumeen egoera aldatu egin da azkeneko urteetan, eta zentzu horretan, berdintasunerako eskubidea bermatuko duten neurrien martxan jartzea beharrezkoa izaten ari da emakumeen aldarrikapenak lortu, eta berdintasun erreal batetan aurrerapausoak eman ahal izateko.

Oraindik asko falta da emakume eta gizonen arteko guztizko berdintasun hori lortzeko. Baina garrantzitsua da Berriozarko herritarrek Plan honek dituen jarduerak bermatzea, emakume eta gizonen arteko aukera berdintasun osoa lortzerako bidean, etenik egin gabe.

Agur bero bat,

Raúl Maiza

Berriozarko alkatea.

Mundu osoan gehien urratzen den giza eskubideetako bat da emakume eta gizonen arteko berdintasuna. Horregatik, Berriozarko Udaletik, kontziente gara serioa eta errealista den berdintasun plan baten beharra dagoela. Berdintasunean aditua diren udal arduradunek ekintza eta jarduerak aurrera eramateko tresna erabilgarria izan dadin, gizon eta emakumeen artean existitzen den aldea txikitu ahal izateko.

Udaletxe honek aurrera eramaten dituen ekintza guztietan Berdintasuna egon behar da, eta plan honek zeharkakotzen lagundu beharko du.

Kontziente gara, berdintasun erreal batetara iristeko bidea mantsoa dela, baina ezin diogu saiatzeari utzi, ezta arreta jaitsi ere. Beraz, lanean jarraituko dugu plan hau martxan ipintzeagatik eta etorkizun berdinkor batengatik, Berriozarko etorkizuneko belaunaldiei begira.

Berriozarko Udaleko Berdintasun alorreko Zinegotzia
Ana Estepa Román

2. SARRERA

Azkeneko urteetan asko izan dira berdintasun arloan lortutako **aurrerabideak**, ez bakarrik emakumeen bizi kalitatea hobetzerari bideratuta, baizik eta batez ere, herritargoa osatzen duten gizon eta emakumeen eskubide eta betebeharren arteko berdintasun errealaren egoera, eremu publikoan nahiz pribatuan lortzera ere.

Era berean, **emakumeen kontrako indarkeriaren** izaera estrukturalaren aitorpena, eta esku hartzearen premia izan da, Berriozarren berdintasunaren alde egindako borrokan, azken bi hamarkadetan egon den lorpen handienetarikoa. Ez bakarrik eremu judizialean, baizik eta heziketa eremuan ere, formakuntzan eta sentsibilizazioan. Sexuarengatik ematen den muturreko diskriminazioarekin bukatzeko.

Estereotipo sexistak gainditzeko lana, **berdintasunezko partaidetza eremuan** sorketa, **Lehen eta Bigarren hezkuntzan hezkidetzaren oinarrietan** sakontzea, zabaltzea eta barneratzea, toki Administrazioaren aldetik Berdintasunarekiko eta emakumeen ikustaraztearekiko konpromezuak dira, bide luze honetan eman izan diren beharrezko eta etengabezko pausoak. Berriozarren gizon eta emakumeen arteko berdintasun errealia lortu ahal izateko.

Egia esan, 2015. urtean eta zazpi urte baino gehiago irauten ari duen **krisi ekonomiko** baten baitan, gizon eta emakumeen arteko Berdintasuna erronka berrien aurrean dago, konpondu gabeko alderdi zaharrak dituelarik.

Berriozar aurrenetariko herria izan da emakume eta gizonen arteko berdintasun politikak martxan jartzeari dagokionez. 1990. urtean hasi zuen bidea "ALBA" (Centro Municipal de Atención a la Mujer) zentroa martxan jarrita, eta 1996ean emakume eta gizonen arteko berdintasunerako I. Plana onartu zuen. 2000. urtetik aurrera, Udalak arlo honetan Zinegotzi bat dauka. 2003an II. Berdintasun plana onartua izan zen eta 2006an Emakumearen Arloa, Berdintasun Arloa bilakatu zen. 2009. urtean, ALBA Zentroak egiten zituen funtzioak Udalera aldatu ziren, Berdintasun Arlora zehazki.

Udal Berdintasun Arloa Berdintasun Teknikari batek kudeatzen du, Laguntza juridiko zerbitzuan dagoen abokatu batekin eta Laguntza psikologiko zerbitzuan dagoen psikologa batekin koordinatuta, emakumeei arreta emateko taldea osaturik.

Momentu honetan, -2015, Berriozarko Berdintasunerako III. Planaren lanketan-, **hamahiru urte** igaro dira **II.Plana aprobatu zenetik** eta Berriozarrek egun **9659 biztanle** dauzka, zeinetatik 4746 emakumeak, eta 4913 gizonak diren.

2015ean Berdintasunerako II. Planaren ebaluazioa egin izan da ere, eta bere prozesu eta emaitzak "Berriozarko Udaleko Berdintasunerako II.Planaren Ebaluazio Txostena" dokumentuan bilduta daude.

Emakume eta gizonen Berdintasunerako III. Plan honen idazketan, eta Berriozarko **eremu sozial, politiko eta teknikoko 50 eragileen partaidetzarekin** egindako ekarpen bilketa lan handi baten ondoren, Berdintasun Teknikariak koordinatuta, datozen zortzi urteetan zehar tokiko berdintasun politika definitu eta zehazteko baliogarria izango den, oinarrizko dokumentu bat diseinatzea dugu helburu.

Era berean, Berriozarko Berdintasunerako III. Plana, Nafarroako Berdintasunerako Institutuak egindako dokumentuan oinarriturik dago kokatua eta idatzia, Nafarroako Berdintasun Teknikariek batera koordinatuta 2014ean zehar egindako "**udaletako berdintasun alorretako lana planifikatu, kudeatu eta ebaluatzeko ibilbidea**". Ibilbide hau, genero berdintasunari dagokionez esku hartze eredu berria da Nafarroako Toki-Entitateek erabili dezaten.

Berdintasunerako III. Plana egiteko **laguntza teknikoa Equala Iniciativas SL**. Aholkularitzari dagokio.

3. BERDINTASUNERAKO III.PLANAREN METODOLOGIA

Berriozarko emakume eta gizonen Berdintasunerako III. Plan hau, tokiko emakumeen egungo beharren inguruan, eta gizon eta emakumeen berdintasuna lortzeko erronkei dagokienez egindako hausnarketa eta azterketa **prozesu parte-hartzaile** baten fruitu da.

50 pertsona izan dira -23 emakume eta 27 gizon-, langileri politiko, tekniko, elkarte eta herritargoaren artean, **diagnostikoaren fasean** era aktiboan parte hartu dutenak, Berdintasunerako III. Plan hau bertatik landu eta idatzi delarik.

Berdintasunerako III. Planaren lanketarako, lehenbizi, *aurreko Planean egindako ebaluaketa prozesuan lortutako ondorioak* aztertu dira. Era berean, Berriozarko biztanleriari dagozkion *datu soziodemografikoak* bildu dira.

Saio parte-hartzaileak eta elkarrizketa sakonak egin izan dira, Berriozarren genero berdintasunaren inguruan existitzen diren ikuspuntu ahalik eta gehienak biltzeko helburuarekin.

Hurrengo taldeekin batera *7 saio parte-hartzaile* egin dira:

- Elkartek eta biztanleriari irekia
- Berdintasunerako batzordea
- Ohitura Osasuntsuen Programa
- Udal langilego teknikoa
- Udal Ordezkaritza sindikalak
- Ikastetxeetako zuzendari taldeak

Modu horretan, herrian emakumeekiko egindako lana dela eta, duten erreferentzialtasunagatik hautatutako *7 pertsonekin* egin izan dira *elkarrizketa sakonak*.

Jarraipen eta koordinazio bilerak egin dira Berdintasun Teknikariarekin prozesu guztian zehar.

4. BERDINTASUN PLANAREN EGITURA

Berriozarko Berdintasunerako III. Plana, Nafarroako Berdintasunerako Institutuak (Nafarroako Gobernua) egindako **“udaletako berdintasun alorretako lana planifikatu, kudeatu eta ebaluatzeko ibilbidea”** dokumentuan oinarriturik dago diseinatuta. 2014ean zehar Nafarroako Berdintasun Teknikariek in batera koordinatuta izan zen dokumentua.


Aipatutako dokumentuan esaten den moduan, Berriozarko Berdintasun Arloa izango da berdintasunari begira egingo den bide hau, bultzatu, koordinatu eta kudeatuko duen egitura. Eta bere papera nahitaezkoa da aldaketa eta eraldaketa prozesuak sortzeari dagokionez, ekitatearen bidean, biztanleriatik gertuen dagoen esku hartze eremuan; herrian bertan.

Genero berdintasunaren eransketak ezin du arlo bakar batetan eragin edo zehatza izan, baizik eta interesdun talde ezberdinak inplikatuz behar ditu (alkatetza eta talde politikoak, udal idazkaritza, esku hartzea, arloetako arduradunak, pertsona langileen ordezkariak legalak, etab.)

Ibilbideko esku hartze ereduak:

Berdintasunerako III. Plana, berdintasun arlotik esku hartzen den lau eremuetan egituratzen da. Haietako bakoitzarentzako, hurrengo eskeman biltzen den moduan, ildo estrategikoak, programak, eta azkenik, helburuak, jarduketak eta ebaluazio adierazleak aipatzen dira.

Egitura:



Esku hartzeko eremuak:

Ibilbideak lau eremu zehazten ditu udaletako berdintasun alorren lana hedatzeko: "Toki gobernamentua eta genero-zeharkakotasuna", "Emakumeen aurkako indarkeria", "Zaintza, erantzunkidetasuna, eta eginkizunak bateratzea" eta, azkenik, "Emakumeen ahalduntzea, parte-hartze soziopolitiko eta balioen aldaketa".

Ildo estrategikoak:

Esku hartzeko eremu bakoitzeko lana planifikatzeko, ildo estrategiko ezberdinak ezartzen ditu ibilbideak. Ildo bakoitzak lan-programa ezberdinen norabidea eta orientazioa erakutsiko ditu.

<p style="text-align: center;">1. Esku hartze eremua: Toki gobernandua eta genero zeharkakotasuna</p>	<p style="text-align: center;">2. Esku hartze eremua: Emakumeen kontrako indarkeria</p>
<p>1. ildo estrategikoa: Genero berdintasunerako udal egiturak.</p> <p>2. ildo estrategikoa: Trebakuntza tekniko eta politikoa genero ikuspegi osoa txertatzeko Udalean.</p> <p>3. ildo estrategikoa: Udaletako lan-prozedurak emakumeen eta gizonen tratu eta aukera berdintasunerako printzipioaren arabera.</p> <p>4. ildo estrategikoa: Genero berdintasuna Udaleko garapen iraunkorraren alderdietako bat den aldetik.</p>	<p>1. ildo estrategikoa: Emakumeen aurkako indarkeria Udalean.</p> <p>2. ildo estrategikoa: Indarkeriarik gabeko bizitza emakumeendako.</p>
<p style="text-align: center;">3. Esku hartze eremua: Zaintza, erantzunkidetasuna, eta eginkizunak bateratzea</p>	<p style="text-align: center;">4. Esku hartze eremua: Emakumeen ahalduntzea, parte- hartze soziopolitiko eta balioen aldaketa</p>
<p>1. ildo estrategikoa: Herritarren ongizatea eta bizi-kalitatea Zaintzaren Etika garatuz eta emakumeek eta gizonek lana, familia eta norberaren bizitza erantzunkidetasunez bateratuz.</p> <p>2. ildo estrategikoa: Denborak, espazioak eta zaintzak kudeatzeko eredu berriak Udalean.</p>	<p>1. ildo estrategikoa: Emakumeen herritartasun osoa norberaren ahalduntzearen bitartez.</p> <p>2. ildo estrategikoa: Emakumeen eta gizonen berdintasunaren balio soziala, balio sozialak eraldatuz.</p>

Lan programak:

Lan-programek osatzen dute genero berdintasuna udalean eta udaletik sustatzeko ekintza plana. Programa bakoitzak bere helburuak eta jarduketak ditu, bai eta helburuak ebaluatzeko adierazleak ere.

Jarduketak eta bere lehentasunak:

Programa bakoitzaren barnean daude aurrera eramango diren jarduketa zehatzak.

Gainera, beren ezarpenak zentzua izan dezan, jarduketen lehentasun maila ezberdinak existitzen dira. Hiru mailakako esku hartzeak daude, jarduketak maila horien arabera egituratuz. Ez baldin bada I. mailako esku hartzea betetzen, ez dago II. mailara pasatzeko baldintzarik. II. mailako betetze gradu altua ez bada ematen, gomendagarria da III. mailara ez pasatzea. Esku hartze maila aurreratuenetan, beste maila baxuagoetan martxan jartzen diren jarduketak elkarbizi dira, baina jada finkatze fasean daudelarik.

Aurrerago, eta jarduketa bakoitzean, zehaztu egiten da I. Mailakoak, II. Maila edo III. Mailakoak diren.

Urteko programazioak:

Berdintasunerako Plana urtero irudikatu eta zehaztuko da "urteko programazio" baten bitartez, izaten ari den urteko azken hiruhilean, berdintasun arloaren eskutik, aipatutako lehentasun mailen arabera.

Denborak eta aurrekontua:

Plan honen iraupena zortzi urtekoa izango da, 2016-2023, urteko programazioaren barne, jarduketa bakoitza gauzatzeko epea ezarri.

Modu horretan, "ebaluaziorako sistema" atalean, jarduketa ezberdinak ebaluatzeko epeak eta momentuak ezarriko dira.

Berdintasun Arloak urtero Udaleko aurrekontu osoko %1-a abiatze aurrekontua gutxienez izango du.

5. ESKU HARTZE EREMUAK

1. Esku hartze eremua: Toki gobernarendua eta genero zeharkakotasuna

1. ILDO ESTRATEGIKOA

GENERO BERDINTASUNERAKO UDAL EGITURAK

1. Programa. **Genero-berdintasunerako Udal Alorrak eta Unitateak**

Programaren helburuak:

Genero mainstreamingaren estrategia sustatu eta zilegiztatzea udalean, udal berdintasun arloa bermatuz.

Jarduketak:

- a) **Berdintasun arloaren** eta bere **berdintasun teknikariaren** kokapena ziurtatu eta finkatzea udal organigramaren barnean. Berdintasun Zinegotzigoaren **mendekoa** izanik, genero zeharkakotasuna erraztuz, bertatik bultzatzen diren jarduketan bidez, eta bere gain hartuz genero berdintasunaren inguruko funtzioak bakarrik. **I. MAILA**
- b) **Berdintasunerako udal ordenantza** bat idatzi, arloan finkatzeko dokumentu arauemaile gisa, luzaroan ezarrita egon ahal izateko, berdintasun udal politiken oinarri. **III. MAILA**
- c) **Arloen arteko koordinaziorako mahai tekniko bat** martxan jartzea, arlo bakoitzeko pertsona tekniko arduradunen errepresentazioarekin, udalerrian genero mainstreaminga indartzeko, bere urteroko **lan** programekin batera. **I. MAILA**
- d) Udal arloetan **genero zeharkakotasuna** txertatzeko **aholkularitza**. **I. MAILA**
- e) Udaletik egiten diren kanpo-komunikazio guztien **hizkeraren** gainbegiratzea. **I. MAILA**

Adierazleak:

- Berdintasun arloa, Berdintasun Zinegotzigoaren baitan dago genero berdintasun gaiaren inguruko funtzio zehatzekin.
- Berdintasun udal ordenantza idatzi eta ezartzea.

- Arloen arteko mahai teknikoak egiten dituen bilera kopurua urtero, pertsonak arlo eta sexuarengatik banakatuta izanik.
- Genero zeharkakotasunaren txertaketa maila udaleko arloetan eta hura jaso dezan dokumentazioa.
- Arlo bakoitzeko, hizkera barnerakorra berrikusten duen dokumentu kopurua.

Arlo arduraduna: Berdintasun arloa.

1. Esku hartze eremua: Toki gobernamentua eta genero zeharkakotasuna

2. ILDO ESTRATEGIKOA

TREBAKUNTZA TEKNIKO ETA POLITIKOA GENERO MAINSTREAMINGAREN ESTRATEGIA TXERTATZEKO UDALERRIAN

2.Programa: ***Prestakuntza berezitua genero mainstreaminga edo genero ikuspegi integratua txertatzeko.***

Programaren helburuak:

- Kondizioak sortzea udal arduradun politikoak eta teknikariak genero mainstreaminga ezartzeko lagun dezaten.
- Udal politikariak eta teknikariak trebatzea genero ikuspegi integratua txerta dezaten norberaren alorretik eta udalean duten lan arduetatik abiatuta.

Jarduketak:

- a) **Politikariei zuzendutako formakuntza Plan** bat sortu eta martxan jartzea, udalerrian genero mainstreamingaren aplikazioaren eduki eta eraginarena. **I. MAILA**
- b) **Teknikariei zuzendutako formakuntza** prozesu baten sorrera genero mainstreamingaren aplikazioan ardura zuzena izanik, arlo guztietarako oinarriko ikuspegi aldearekin eta arlo bakoitzeko zehaztasunengatik beste alde ezberdinarekin. **I. MAILA**
- c) **Hirigintza eta obra, administrazio eta esku hartze** arloetako teknikariendako formakuntza zehatza, arlo bakoitzarekin harremandutako politikan ematen den genero inpaktuaren inguruan. **I. MAILA**

Adierazleak:

- Politikarientzako Formakuntza Plan bat egotea.
- Urtero egiten diren formakuntza ordu kopurua, pertsona parte-hartzaileak, arloa, ardura maila (politiko eta tekniko) eta sexuarengatik banakatuta.

Arlo arduraduna: Berdintasun arloa.

1. Esku hartze eremua: Toki gobernarendua eta genero zeharkakotasuna

3. ILDO ESTRATEGIKOA

UDALETAKO LAN-PROZEDURAK EMAKUMEEN ETA GIZONEN TRATU ETA AUKERA BERDINTASUNERAKO PRINTZIPIOAREN ARABERA

3.Programa: **Genero ikuspegia udal araudiak prestatzean, baita Udalerrian garrantzi eta eragin berezia duten plan, programa eta proiektuetan ere.**

Programaren helburua:

Bermatzea udaletik sustatzen diren arau, plan, programa eta proiektuek ez dietela modu baztertzailer batean eragiten emakume eta gizonei, eta onuragarriak direla genero berdintasunerako.

Jarduketak:

a) **Prozedura zehatza diseinatzea** txostenak prestatu eta aztertzeko zer eragin duen, generoaren arabera, udal araudiak, baita udalean garrantzi berezia duten plan, programa eta proiektuek ere, erreferentziatzen harturik Nafarroako Gobernuak holako txostenak prestatzeko darabilen prozedura. **III. MAILA**

Adierazleak:

- Genero inpaktuaren adierazle diren txostenak prestatzeko prozedura zehatza bat egotea.
- Kopurua: Udalek onetsitako guztietatik, zenbat arau, plan, proiektu eta/edo programek duten genero eragin positiboa, bakoitzari buruzko txostenaren arabera, arlo eta urte bakoitzeko.

Arlo arduraduna: Berdintasun arloa.

1. Esku hartze eremua: Toki gobernandua eta genero zeharkakotasuna

3. ILDO ESTRATEGIKOA

UDALETAKO LAN-PROZEDURAK EMAKUMEEN ETA GIZONEN TRATU ETA AUKERA BERDINTASUNERAKO PRINTZIPIOAREN ARABERA

4. Programa: **Plangintza eta aurrekontuen ebaluazioa**

Programaren helburuak:

- Kondizioak sortzea berdintasunerako udal politikak sustatu ahal izateko.
- Aztertzea ea udalaren aurrekontuaren banaketak modu ezberdin edo/eta baztertzailan eragiten dien emakumeei eta gizoni.
- Udalaren aurrekontuan ekitate handiagoa lortzen laguntzea.

Jarduketak:

- a) Udal **aurrekontu** orokorretik **gutxieneko %1a** ematea Berdintasun Arloari urtero. **I. MAILA**
- b) **Genero inpaktuaren inguruko ikerlan bat** egitea udal aurrekontuari loturikoa, aurrekontu sarrera zehatz batekin hasita. **III. MAILA**
- c) Bultzatzea, aurrekontuetan arduraduna den arloarekin batera, **genero ikuspegiaren eransketa aurrekontuetan**, aurrera pausoak ematen aukera emango dutenak. **III. MAILA**

Adierazleak:

- Udal aurrekontuetatik gutxieneko %1a Berdintasun Arloak izatea.
- Urteko aurrekontuaren edo aurrekontu sarrera baten-baten genero inpaktuaren inguruko ikerlana izatea.
- Genero ikuspegia aurrekontuetan eransteko jarduketa proposamen kopurua eta mota.
- Esku-hartze arlo bakoitzeko (genero mainstreaminga; emakumeen kontrako indarkeria; zaintza, elkarlana eta kontziliazioa; ahalduntzea eta emakumeen partaidetza soziopolitikoak) genero berdintasuna lortzeko urtean bideratutako aurrekontu portzentaia.

Arlo arduraduna: Berdintasun arloa.

1. Esku hartze eremua: Toki gobernamentua eta genero zeharkakotasuna

3. ILDO ESTRATEGIKOA

UDALETAKO LAN-PROZEDURAK EMAKUMEEN ETA GIZONEN TRATU ETA AUKERA BERDINTASUNERAKO PRINTZIPIOAREN ARABERA

5. Programa: **Genero ikuspegia txertatzea langileen kudeaketan.**

Programaren helburua:

Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea udalak langileak hautatu eta sustatzeko egiten dituen prozesuetan, baita langileak kudeatzeko politika orokorrean ere.

Jarduketak:

a) Hurrengo kontuak biltzen dituen ikerlana sortu eta zabaldu; ondoren beharrezko neurriak diseinatu ere, genero desberdintasuna eta diskriminazio egoerak zuzendu eta aurreikusi ahal izateko. **II. MAILA**

-**Sexuarengatik banatutako udal langilegoa**, kontratu mota, lanaldia, maila bakoitzeko emakume eta gizonen banaketa, soldatak eta gainerakoak, langilegoaren promozio prozesuak, etab. aztertuz, generoko aldea bezalako kontuei, eta segregazio horizontala eta bertikalari ere erreparatuz, etab.

- Udaleko langilegoak erabilgarri dituen **kontziliazio neurriak** eta zentzu horretan langileen behar guztiak betetzen dituen behatu.

b) Sexuarengatik ematen diren diskriminazio jarrerak **aurreikusteko eta haien aurrean jarduteko Plana** sortzea, eta *mikromatxismoen* ikustaraztea udalean, organizazio gisa, udaleko langilegoan identifikatutako hobekuntza arloak aztertu ondoren. **II. MAILA**

Adierazleak:

- Udaleko langilegoa sexuaren arabera, eta kontziliazio neurriak aztertuko dituen ikerlana izatea.
- Zenbat ekintza eta zer motatakoak sustatu diren genero desberdintasunak eta genero bereizkeriak zuzentzeko udal langilegoan.

- *Mikromatxismoak* eta sexuarengatik ematen diren jarrera baztertzailleak identifikatzeko barne-diagnostiko bat izatea, aurreikusi eta jarduteko planarekin batera.

Arlo arduradunak: Berdintasun arloa/ Giza errekurtso arloa.

1. Esku hartze eremua: Toki gobernamentua eta genero zeharkakotasuna

3. ILDO ESTRATEGIKOA

UDALETAKO LAN-PROZEDURAK EMAKUMEEN ETA GIZONEN TRATU ETA AUKERA BERDINTASUNERAKO PRINTZIPIOAREN ARABERA

6.Programa: **Informazioaren kudeaketa eta komunikazio-politika.**

Programaren helburuak:

- Udal jardueran hizkuntza eta irudi ez sexistak erabiltzea.
- Herritarrekiko komunikazioan hizkuntza eta irudi ez sexistak erabil daitezten sustatzea.
- Kondizioak sortzea berdintasunaren arloko informazioa udal langileengana eta herritarrengana iritsi dadin.

Jarduketak:

- a) Udaleko arlo guztietan barne-**azterketa** bat egitea testuetan erabilitako hizkera, irudiak eta ikonoen inguruan. **I. MAILA**
- b) Udalean, hizkuntzaren eta irudien erabilera ez sexista txertatzeko **araudi eta prozedimentuak sortzea**. **I. MAILA**
- c) Herritarren hizkera ez sexistari zuzenduta dauden **inpresio, plantilla eta beste dokumentu administratiboen egokitzapena**. **I. MAILA**
- d) Datu pertsonalak biltzen diren udaleko dokumentu guztietan **sexuaren aldagaia txertatzea**. **I. MAILA**
- e) **Sentsibilizazio jarduketa** martxan jartzea foiletoetan erabiltzen diren irudiak, sexistak ez izateaz gain, topikoekin apurtu eta eraldaketa sozialak lagundu ditzaten: familia ereduak, etab. **I. MAILA**
- f) Barne erabilerarako dokumentu bat sortzea, bestelako irudi, esaera, eta ikonoekin, emakumei eta gizonei tradizionalki atxikitutako paperekin apurtuz. **I. MAILA**
- g) Genero ikuspegia udaleko web-ean txertatzea, informazio erabilgarriarekin berdintasun arloko eremua edukiz betez, arloko kontuak eta bere jarduketan inpaktua ikustaraziz, sare sozialetan ere zabalduaz. **I. MAILA**

- h) Sexuaren aldagaia txertatzea, udaleko arlo ezberdinetan eskaintzen diren **zerbitzuen erabilera eta egindako jarduketan** inguruan biltzen diren datu guztietan. **II. MAILA**
- i) Sexuaren aldagaia txertatzea, **ikerketa, informe eta** udaletik sortu edo **existitzen den informazio estatistiko guztian**, udal kudeaketa prozesuen arduradun diren teknologia enpresak konprometitzuz, modernizazio administratiboari begira eta nahitaezko baldintza bezala. **III. MAILA**

Adierazleak:

- Dokumentazio, kartel %-a aztertu, zeinetan komunikazio bateratzailea erabiltzen den edo ez, esanez, eta zeintzuk doazen haratago, estereotipoak eta emakume eta gizonei sozialki atxikitutako paperekin apurtuz.
- Araudi osatua egotea, udalean hizkera ez sexista txertatu ahal izateko.
- Hizkuntzaren erabilera ez sexistari, aldatu eta moldatutako dokumentu kopurua.
- Sexu aldagaia txertatzen den udal dokumentu kopurua.
- Estereotipoak apurtzen dituzten irudien inguruko sentsibilizazio jarduketa.
- Genero komunikazio ez bateratzaileari egindako alternatiba barne-dokumentua osatuta dago.
- Udalaren web orrian bada atal bat udalaren berdintasun alorretik egiten den lana ikusgai egiteko.
- Genero ikuspegira moldatzeko udal Web-aren aldaketak eginda daude.
- Eskaintzen diren zerbitzuen eta jarduketan estatistikak jasotzeko momentuan sexuaren aldagaia erabiltzen duten arloak.
- Sexuaren aldagaia jasotzeko helburuz informazio estatistikoan egin diren aldaketa kopurua.

Arlo arduradunak: Berdintasun arloa/ Giza errekurtso arloa/ Idazkaritza.

1. Esku hartze eremua: Toki gobernamentua eta genero zeharkakotasuna

3. ILDO ESTRATEGIKOA

UDALETAKO LAN-PROZEDURAK EMAKUMEEN ETA GIZONEN TRATU ETA AUKERA BERDINTASUNERAKO PRINTZIPIOAREN ARABERA

7.Programa: **Kontratazioa, diru-laguntzak eta hitzarmenak.**

Programaren helburua:

Genero ikuspegia txertatzea udalaren kontratazio, diru-laguntza eta hitzarmenetan.

Jarduketak:

- a) **Genero azterketa egitea** Udalaren kontratazio, diru-laguntza eta hitzarmenetan. **II. MAILA**
- b) **Lantalde tekniko bat** sustatzea, kontratu, diru-laguntza eta hitzarmenak prestatu eta kudeatzeko ardura duten udal langileek osatua, genero ikuspegia txertatzen hasteko prozedimendu hauetan. **II. MAILA**
- c) Kontratu, diru-laguntza eta hitzarmenetan genero baldintzak txertatzeko **prozedura zehatza prestatzea.** **III. MAILA**
- d) **Genero baldintzak txertatzea** udal kontratu, diru-laguntza eta hitzarmenetan –enpresa eta entitate azpikontratatuak berdintasun gaiarekiko jaso izan duten formakuntza bereziki kontuan harturik-. **III. MAILA**

Adierazleak:

- Genero ikuspegitik aztertutako kontratu, diru-laguntza eta hitzarmen kopurua.
- Sortutako lan talde teknikoa eta kontratuen elaborazio eta kudeaketan genero ikuspegia txertatzeko egin diren jarduketak.
- Udal kontratuetan genero baldintza txertatzeko prozedimendu zehatz bat egotea gida moduan.
- Udal kontratu, diru-laguntza eta hitzarmen portzentai osotik, genero baldintza txertatzen duena.
- Kontratu, diru-laguntza eta hitzarmenetan txertatzen diren genero-baldintza kopurua eta mota, mota bakoitzeko.

Arlo arduradunak: Berdintasun arloa / Giza errekurtsio arloa / Idazkaritza / Eskuhartzea.

1. Esku hartze eremua: Toki gobernamentua eta genero zeharkakotasuna.

3. ILDO ESTRATEGIKOA

UDALETAKO LAN-PROZEDURAK EMAKUMEEN ETA GIZONEN TRATU ETA AUKERA BERDINTASUNERAKO PRINTZIPIOAREN ARABERA

8.Programa: **Emakumeen eta gizonen partaidetza eta ordezkarietza orekatua**

Programaren helburua:

Presentziaren edo osaketa orekatuaren printzipioa ezartzea udal eskumeneko edozein taldetan, aintzat harturik emakumeen eta gizonen egiazko berdintasunerako 3/2007 Legeak nola definitzen duen presentzia orekatua.

Jarduketak:

- a) Genero irizpideak txertatzea **udal lanbide eskaintzan**. II. MAILA
- b) Presentzia orekatuari buruzko **irizpideak ezartzea** lan batzorde iraunkorretan, organoetan, etab. II. MAILA
- c) **Ekintza positiborako neurriak sustatzea** emakumeek ordezkarietza apala duten udal alorretan emakume gehiago egon dadin. III. MAILA

Adierazleak:

- Zenbat eta nolako genero baldintza dauden, udal lanbide eskaintzan txertatzen direnak, mota bakoitzeko.
- Zenbat jende dagoen, sexua adierazita, udaleko batzorde eta epaimahai iraunkorretan.
- Zenbat neurri txertatu izan diren emakumeen presentzia handiagotzeko ordezkarietza apala duten arloetan.

Arlo arduradunak: Berdintasun arloa/ Giza errekurso arloa

1. Esku hartze eremua: Toki gobernamentua eta genero zeharkakotasuna.

4.ILDO ESTRATEGIKOA

GENERO BERDINTASUNA UDALAREN GARAPEN IRAUNKORRAREN ALDERDIETAKO BAT DEN ALDETIK

2.Programa: **Genero ikuspegia udalaren garapen iraunkorrerako garrantzizkoak diren proiektu, plan eta jarduketetan.**

Programaren helburua:

Laguntzea udalerria garatzeko estrategiak eragin positiboa izan dezan genero berdintasunerako.

Jarduketak:

- a) Udalerriko funtsezko agenteak aholkatzea genero ikuspegia txertatzeko bai **plan sektorialetan, bai udalerriko programen garapenean**, udalerriko Agenda 21 esaterako. **II. MAILA**
- b) Emakumeek eta beren erankudeek, **udalerria garatzeko estrategia prestatzerakoan duten** esku hartzea sustatu eta bideratzea, emakume eta gizonen arteko berdintasuna baldintzatzen duten plan eta proiektuetan esaterako. **II. MAILA**
- c) Genero ikuspegia, Ohitura Osasuntsuen taldean txertatzea. **I. MAILA**

Adierazleak:

- Genero ikuspegipeko aholkularitza jarduketak, genero berdintasunerako eragin positiboa dutenak, udalerraren garapen iraunkorrerako garrantzizkoak diren zenbat proiektu, plan eta jarduera kopuru eta mota.
- Emakumeek, udalerria garatzeko estrategia prestatzen eta emakume eta gizonen arteko berdintasunarekin erlazionaturiko jarduketetan duten esku hartze maila.
- Ohitura Osasuntsuen taldean genero ikuspegiaren txertaketa maila, horixe bera jasotzen duen dokumentazio nagusiarekin.

Arlo arduradunak: Berdintasun arloa / Udal Agenda 21 / Ohitura Osasuntsuen Programa komunitateko talde motorra.

2. Esku hartze eremua: Emakumeen kontrako indarkeria.

1. ILDO ESTRATEGIKOA

EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA BERRIOZARREN

1. Programa: ***Udaleko eta/edo eskualdeko baliabideak koordinatzea emakumeen aurkako indarkeriaren arloan, eta hautematea zein diren hobetu beharreko esparruak emakumeen aurkako indarkeriari hobeki aurrea hartu, erantzun eta heltzeko udalean.***

Programaren helburuak:

- Emakumeen aurkako indarkeriaren arloa lantzeko udalaren jarduketaren eremuan dauden baliabideen egiazko koordinazioa ahalbidetzea, horretarako egokienak diren mekanismoak sortuz.
- Ezartzea zein diren hobetu beharreko arloak emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartu, erantzun eta heltzen joateko.

Jarduketak:

- a) Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko, **sarean lan egiteko protokolo** bat sortzea, inplikaturik dauden pertsona profesional guztien artean –ikastetxeak barne-, arreta integralerako taldea, erreferentia izan dadin eta egiten diren jarduketak guztiak zentralizatu ditzan. **I. MAILA**
- b) Urteroko **informeak egin, protokoloaren eremuan**, udalerriko emakumeen kontrako indarkeriagatik jarri izan diren salaketen ezaugarri eta eboluzioa kontuan izanik, hobekuntza eta jarraipen proposamenak barne. **II. MAILA**
- c) **Arreta integraleko taldeari**, udaltzaingoak, salaketa, aldentzeko agindu, etab. guztien berri eman diezaion **prozedimendu bat** ezarri, eta beste segurtasun indarrekin komunikatzeko sistema bat bilatu. **I. MAILA**
- d) Amankomuneko indarkeria kasuen erregistroen **datu-basea** sortu, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak eta Arreta Integraleko Taldeak sartzeko aukera izan dezaten. **II. MAILA**
- e) Iristen ez diren edo udalerriko emakumeen errealitateetara moldatzen ez diren errekurtso eta zerbitzuak daudenean, ezarritako bideen bitartez, **arduraduna den administrazioari informazioa emateko prozedimendu bat** ezartzea. **I. MAILA**

- f) **Emakumeendako dauden lehen mailako zerbitzu espezializatuen** hobekuntza, zerbitzuko bezeroak diren pertsonentzako nahiz pertsona profesionalentzako eskakizunen gutunontzia ipiniz, arretan genero ikuspegia txertatzeko helburuarekin. **II. MAILA**
- g) Emakumeendako Arreta Integraleko Zerbitzuak herrietara handiagotzearen beharra **agenda politikoan** sartzea, oinarrizko gizarte zerbitzuen mankomunitatearen bidez. **I. MAILA**
- h) **Arreta ordu kopurua** areagotzea psikologa eta abokatuaren aldetik, emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko ematen den lana hobetu ahal izateko –ondoko herritarrekin zerbitzu hauek amankomunean jartzea posible bada beti-. **I. MAILA**
- i) Emakumeendako Arreta Integraleko Zerbitzura hurbiltzen diren pertsonen moldaturiko **eremua** sortzea eta **kokapena** hobetzea. **I. MAILA**
- j) **“Puntu beltzen” mapa** baten identifikazio eta sorketa, udalerrian emakumeentzako eremu kalteberagoak identifikatuz. **II. MAILA**

Adierazleak:

- Hausnarketazko, koordinaziozko eta identifikaziozko udal protokolo baten sorketa, emakumeen kontrako indarkeriarekiko hobetzeko dauden arloei dagokienez, Berriozarren.
- Udalerrian ematen diren emakumeen kontrako indarkeriagatik, salaketen ezaugarrien jarraipena eta ebaluazioa, urteroko txostenen bidez.
- Martxan jarritako jarduketa kopuru eta mota, aurretik aipatutako txostenen zabalpenerako.
- Emakumeen kontrako indarkeria kasuetako salaketa eta tramiteen informazio bideak aztertutako segurtasun indarrak eta arreta integraleko zerbitzuaren artean, eta bi aldeetarako sortutako informazio biltzaile prozedimendu eraginkorra.
- Sortuta egotea amankomuneko indarkeria kasuen erregistroko datu-basea, Berdintasun Arloko Arreta Integraleko Zerbitzuaren, Oinarrizko Gizarte Zerbitzu eta Osasun etxearen artean.
- Arduradun administrazioekin koordinatuta, informazio kanala ezarrita izatea, udalerriko indarkeria kasuei aurre egin eta lanketari begira, jasotako zerbitzuak emakumeen beharretara moldatutako mailaz informatzeko.

- Eskakizunen gutunontzian jasotako eskari kopurua eta mota, eta hobetzeko egin izan diren jarduketak.
- Baloratuta egotea –mankomunitateko batzorde edo bilkuran- beste herrialde batzuetakoak diren, indarkeria pairatzen duten emakumeei Arreta Integraleko Zerbitzua eskaintzea, Mankomunitateko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan badaude.
- Aztertuta, udal arkitektoarekin batera, emakumeenganako Arreta Integraleko Zerbitzuaren kokapenaren hobekuntzarako aukera ezberdinak.
- Areagotzea Arreta Integraleko Zerbitzuko Psikologa eta Abokatuaren arreta ordu kopurua, eta ondoko herritarrek zerbitzuak amankomunean jartzeko borondatea dagoenean, arretaren benetako beharren azterketa.

Arlo arduradunak: Berdintasun arloa.

2. Esku hartze eremua: Emakumeen kontrako indarkeria.

1. ILDO ESTRATEGIKOA

EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA BERRIOZARREN

2. Programa: *Udal langileen trebakuntza, baita emakumeen aurkako indarkeriaren arloan Berriozarren lan egiten dutenena ere.*

Programaren helburuak:

- Udal langileak trebatzea emakumeen aurkako indarkeriaren arloan.
- Udalak emakumeen aurkako indarkeriari begira, egokia den moduan esku hartzen duela bermatzea.
- Agenda politikoan txertatzea emakumeen aurkako indarkeria deuseztatu beharra.

Jarduketak:

a) **Diagnostikoa** egitea jakiteko zein diren emakumeen aurkako indarkeriaren arloko **prestakuntza** beharrak, udal alor bakoitzean. **I. MAILA**

b) **Udalbatza berriei zuzenduriko prestakuntza** ekintzak diseinatzea (2015 /2019) emakumeen aurkako indarkeria mota ezberdinei buruz, zer eragin duten udalerrian eta zer baliabide dauden auziari heltzeko. **I. MAILA**

c) **Teknikariei zuzendutako bi urteko prestakuntzako udal plan** bat diseinatu, abiarazi, ezarri eta ebaluatzea, emakumeen aurkako indarkeria hobeki hauteman, informatu, artatu eta bideratzeko. **I. MAILA**

d) **Udaltzaingoari** zuzendutako formakuntza plana diseinatu eta martxan jarri, existitzen diren emakumeen kontrako indarkeria modu ezberdinen inguruan, eta barne-protokolo baten sorketa, emakumeenganako arreta integraleko lantaldearekin batera jarduteko. **I. MAILA**

e) **Mintegi edo jardunaldi berariazkoak prestatzea**, edo haietan parte hartzea, NFBirekin eta beste toki entitate edo erakunderekin batera, emakumeen aurkako indarkeriaren arloan udalerria ukitzen duten errealitate zehatzei buruz; hala nola, emakumezkoen mutilazio genitala, emakumeen aurkako indarkeria sare sozialetan, emakumeen salerosketa sexualki esplotatzeko, sexu-jazarpena eta sexuagatiko jazarpena, etab. **I. MAILA**

Adierazleak:

- Emakumeen kontrako indarkeriari dagokionez formakuntza beharren diagnostiko bat egotea, udal arlo bakoitzeko.
- Zenbat prestakuntza ordu eman dituen udalak emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzeko eta heltzeko.
- Zenbat prestakuntza ekintza egin diren eta zer motatakoak.
- Arlo politiko, tekniko eta udaltzaingotik zenbat jendek parte hartu duen egindako prestakuntza ekintzetan, erantzukizun maila eta sexua kontuan hartuta.
- Antolatutako topaketa espezifiko kopurua eta emakumeen aurkako indarkeriaren errealitate zehatzen inguruan, kanpoko prestakuntza ekintzetan parte harturiko udaleko pertsona kopurua.

Arlo arduradunak: Berdintasun arloa.

2. Esku hartze eremua: Emakumeen kontrako indarkeria.

1. ILDO ESTRATEGIKOA

EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA BERRIOZARREN

3. Programa: **Emakumeen aurkako indarkeriaren arloari aurre egiteko udaleko eta udalez gaindiko baliabideak hurbiltzea, eta ziurtatzea udalerrian badela haien berri, emakumeengana iristen direla eta genero indarkeriaren arloko arazoak dituzten herritarrei egokitzen zaizkiela.**

Programaren helburuak:

- Bermatzea emakumeen informaziorako eskubidea, hots, badakitela zein diren genero indarkeriaren arloan dauden zerbitzuak eta baliabideak.
- Egokitzea emakumeen aurkako indarkeriaren arloan dauden baliabide eta zerbitzuak udalerririk arlo horretan dituen berezitasun eta ezaugarriei.

Jarduketak:

a) Emakumeen aurkako indarkeria kasuak artatu eta emakumeak babesteko **baliabideen mapa** udalerrikaren ezaugarriei egokitzea, eta eskualdean haien berri zabaltzea, behar diren eta egokienak diren komunikazio bideak eta hizkuntzak erabiliz. **II. MAILA**

b) **Profesionalak egunerokotasunez informatzea**, norberaren eskumenen arabera, dauden baliabide eta zerbitzuak ezagut ditzaten. **II. MAILA**

c) Herritarrei informazioa ematea ezagutarazteko zein diren **Nafarroako Gobernuak**, Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Legeari jarraituz, bermatzen dituen prestazioak, dauden jarduketa protokoloak, emakumeei laguntza juridikoa emateko zerbitzua. **I. MAILA**

d) **ATENPRO genero indarkeriko biktimendako telelaguntzaren berri ematea**, hartara batzeko modua kudeatzea eta segimendua egitea. **I. MAILA**

Adierazleak:

- Zenbat jarduketa egin diren eta zer motatakoak emakumeen aurkako indarkeriaren arloan udalean eta udalez gaindi dauden baliabideak egokiro irits daitezten genero indarkeriako arazoak dituzten

emakumeengana, udalerriko gizarte eta hizkuntza errealitateetara moldatuta.

- Profesionalei, existitzen diren zerbitzu eta errekurtsoen aldizkako informazio plana ezarria egotea.
- Existitzen den informazio multzoaren bideak aztertirik, eta profesional eta pertsona erabiltzaileekiko hobekuntza ezarri kopurua.
- ATENPRO zerbitzuaren kalitatea aztertuta, udalarekiko kudeaketari begira, eta pertsona erabiltzaileei eskaintzen dien zerbitzuari begira.

Arlo arduraduna: Berdintasun arloa.

2. Esku hartzeko eremua: Emakumeen kontrako indarkeria.

1. ILDO ESTRATEGIKOA

EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA BERRIOZARREN

4. Programa: ***Udal baliabideak eta zerbitzuak eskuratzeko eta haietan parte hartzeko bideak genero indarkeriako arazoak dituzten emakumeendako, haien seme-alabendako eta mendeen dituzten bestelako pertsonendako.***

Programaren helburuak:

- Aintzat hartzea, udal baliabide eta zerbitzuak diseinatu eta kudeatzean, indarkeriaren biktimak diren emakumeek, eta haien mendeen dauden beste pertsonak, egoera eta posizio ezberdinak dituztela.
- Udalaren tokiko agendan zeharkako bihurtzea, bai genero indarkeria, bai emakumeen aurkako indarkeria deuseztatzea.

Jarduketak:

- a) Indarkeria problematikak dituzten emakumeek udal **errekurtso eta zerbitzuak** (udalaren pisuak, aholkularitza juridiko eta psikologikoa, eta beste hainbat) erabil ditzaten sustapen prozedimendua diseinatu eta kudeatu. **II. MAILA**
- b) Indarkeria arazoak dituzten emakumeentzako udaleko **prestakuntza jardueretarako lekuen** erreserba. **II. MAILA**

Adierazleak:

- Zenbat ekintza eta zer motatakoak egiten diren, udalerrian emakumeen kontrako indarkeria arazoak dituzten emakumeek, udal baliabideak eta zerbitzuak eskuragarriago izan ditzaten.
- Emakumeen kontrako indarkeria arazoak dituzten emakume kopurua, udal formakuntza jardueratan parte hartu dutenak.

Arlo arduraduna: Berdintasun arloa / Gizarte Ongizate arloa.

2. Esku hartze eremua: Emakumeen kontrako indarkeria.

2. ILDO ESTRATEGIKOA

INDARKERIARIK GABEKO BIZITZA EMAKUMEENDAKO

1. Programa: **Herritarren prebentzioa eta sentsibilizazioa emakumeen aurkako indarkeriaren arloan.**

Programaren helburua:

Emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzea, indarkeria gaitzesten duen eta elkarbizitarako beste molde batzuk sortzen dituen pedagogia landuz, eta balioak, errolak eta estereotipoak aldatuz.

Jarduketak:

- a) **Norbereko ahalduntzetik eta talde lan-metodologia** batetik abiatuta, indarkeriari aurrea hartzeko lanketa horren jarraipena egitea, emakumeendako arreta integraleko taldeak zuzenduta. **I. MAILA**
- b) **Pertsona helduetan bikote-harreman "osasuntsuak" bultzatzen** dituen ekintzak sustatzea, emakumeendako arreta integraleko Psikologaren esku hartzearen bitartez, martxan dauden prestakuntza jardueretan. **II. MAILA**
- c) **Sentsibilizazio kanpaina** berariazkoei gehitu eta halako kanpainak antolatzea emakumeen eskubideak sortu eta sendotzeko, garrantzi bereziko egunak datozenean (martxoaren 8a, azaroaren 25a, urriaren 15a, irailaren 23a...), udalerriko erakundeekin, eta eragile sozial eta ekonomikoekin elkarlanean. **I. MAILA**
- d) **Elkarretaratze eta bestelako ekintzetara deitzea**, ikusarazteko gizarteak emakumeen aurkako indarkeria gaitzesten duela udalerrian. **I. MAILA**
- e) **Gaztegunearen** eremuan, nerabeei dagokienez ematen den indarkeriari aurrea hartzeko ekintza espezifikoak egitea. **I. MAILA**
- f) **Diseinatu eta zabaltzea**, herritarrak emakumeen kontrako indarkeriaren arloan sentsibilizatzeko eta arazoari aurrea hartzeko lagungarria den **material pedagogikoa**. **I. MAILA**

g) **Eskola kontseiluekin** egindako bileretan proposamenak egitea, emakumeen aurkako indarkeriari buruzko prestakuntza -eta sentsibilizazio-jarduerak antolatzeko irakasle eta ikasleendako. **I.MAILA**

Adierazleak:

- Zenbat pertsonak parte hartzen duten indarkeriari aurrea hartzeko ikuspegitik antolatzen diren talde ekintzetan.
- Zenbat pertsonak parte hartzen duten, sexua kontutan harturik, bikote-harreman "osasuntsuen" promoziorako jardueratan.
- Zenbat eta zein motatako, sentsibilizaziozko eta emakumeendako garrantzi berezia duten daten inguruko kanpaina zehatzetan burututako ekintza dauden.
- Zenbat pertsonak parte hartzen duten, sexua kontutan harturik, emakumeen kontrako indarkeriarenganako mesprezu soziala ikustarazten dituzten ekintza baketsuetan eta kontzentrazioetan.
- Eskola kontseiluei, emakumeen kontrako indarkeriari aurrea hartzeko formakuntzak irakasle eta ikasleekin abian jartzeko proposamena eginda egotea.
- Zenbat eta zein motatako jarduerak egin izan diren Gaztegunetik indarkeriari aurrea hartzeko, eta parte-hartzaile izandako pertsonen sexua.
- Emakumeen kontrako indarkeriaren aurka sortutako material pedagogikoa, herritarrak sentsibilizatu eta indarkeriari aurrea hartzeko.

Arlo arduraduna: Berdintasun arloa / Gaztedi arloa / Hezkuntza arloa.

2. Esku hartze eremua: Emakumeen kontrako indarkeria.

2. ILDO ESTRATEGIKOA

INDARKERIARIK GABEKO BIZITZA EMAKUMEENDAKO

3. Programa: **Udala, genero indarkeria deuseztatzeko programa eta proiektuen sustatzaile.**

Programaren helburua:

Baliatzea udalak emakumeen aurkako indarkeriaren arloan dituen ezagutza eta esperientziaz, emakumeen aurkako indarkeriari hobeki helduko dioten bestelako programak sustatzeko.

Jarduketak:

a) **Emakumeen arreta integraleko zerbitzutik**, emakumeen kontrako indarkeriaren biktima direnei ematen zaien arreta egokiaren praktiken esperientziak eta ezagutzak trukatzeko Nafarroako Gobernuarekin, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin eta beste toki entitateekin, jardunaldi, mintegi, bilera eta abarren bitartez. **II. MAILA**

b) **Ohitura Osasuntsuen Programaren** bitartez, emakumeen kontrako indarkeriari aurrea hartzea eta gelditze azkarra landu ahal izatea. **II. MAILA**

c) Emakumeen kontrako indarkeriari aurrea hartzeari dagokionez, **proiektu berritzaileak** martxan jartzeko proposamenak jasotzea, udalak bideratuta.

II. MAILA

d) Emakumeen kontrako indarkeria era azkarrean identifikatu ahal izatea, eremu formal eta ez formalean **gazteekin batera** landuz, berdintasun arloko argazki lehiaketaren bitartez edo beste inizatibenez bidez. **I. MAILA**

e) Emakume **belaualdien arteko elkarriketa** bultzatu ahal izatea, emakume eta gizonen arteko errespetuzko elkarbizitza ohitura berrietara bideratuta.

II. MAILA

Adierazleak:

- Esperientziak eta ezagutza trukaketak, praktika egoki gisa, emakumeen arreta integraleko zerbitzuarengandik.

- Ohitura Osasuntsu Programatik egindako jarduketa kopurua, emakumeen kontrako indarkeriaren aurrea hartze azkarra landuz.
- Zenbat proposamen egin diren emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko proiektu berritzaileak aurkeztuz, udalak edo beste inizatibaren batek bilduta.
- Emakumeen kontrako indarkeriari aurrea hartzearen tematikarekiko gazteengandik aurkeztu diren argazki kopurua.
- Emakume belaunaldien arteko elkarrizketa bultzatzeko egin diren ekintza kopurua eta parte hartu duten pertsonak, sexua kontutan hartuta.

Arlo arduraduna: Berdintasun arloa / Gaztedi arloa / Ohitura Osasuntsuen Programa komunitarioko Talde motorra.

3.Esku hartze eremua: Zaintza, erantzunkidetasuna, eta kontziliazioa.

1.IILDO ESTRATEGIKOA

HERRITARREN ONGIZATEA ETA BIZI-KALITATEA, ZAINZAREN ETIKA GARATUZ, ETA EMAKUMEEK ETA GIZONEK LANA, FAMILIA ETA NORBERAREN BIZITZA ERANTZUNKIDETASUNEZ BATERATUZ

1. Programa: **Zaintzaren Etika, eta eginkizunak erantzunkidetasunez bateratzea Berriozarren.**

Programaren helburua:

Kondizioak sortzea udalerritik sustatu ahal izateko hausnarketarako eta lanerako guneak Zaintzaren Etikaz eta eginkizunak erantzunkidetasunez bateratzeaz jarduteko.

Jarduketak:

- a) **Erantzunkidetasunaren eta Zaintzaren Etikaren baloreen guztizko lanketa** jasotzen duen planifikazioa sortzea; eta heziketa komunitate guztia (irakasleak, ikasleak eta guraso elkarteak) biltzea. **II. MAILA**
- b) Heziketa komunitateko **profesionalei eta familiei zuzendutako formakuntza**, hezikidetzeta eta heziketa afektibo-sexualaren inguruan. **I. MAILA**
- c) **Aitei** zuzendutako sentsibilizazio jarduerak, erantzunkidetasunaren inguruan, guraso elkarte bidez, zaintza lanetan eta adin-txikikoen heziketan duten partaidetza sustatuz. **I. MAILA**
- d) Lekuko elkarte eta erakundeek, berdintasunari dagokionez erantzunkidetasunean duten **sentsibilizazio mailaren** inguruko artikulua ezberdinen azterketa. **I. MAILA**

Adierazleak:

- Heziketa komunitate osoa inplikatzeko duen balore lanketa proposamena egin egotea.
- Zenbat eta zein motatako prestakuntza ekintzak egin diren hezikidetzeta eta heziketa afektibo-sexualaren inguruan.

- Zenbat eta zein motatako ekintzak egin diren aitekin erantzunkidetasuna jorratzeko.
- Berdintasunarekiko sentsibilizazio maila ikustea ahalbidetzen duen, elkarreengandik bildutako informazio kantitatea eta motak.
- Zenbat entitateek eta elkarteek PLxC-an parte hartzen duten eta daukaten sentsibilizazio maila.

Arlo arduraduna: Berdintasun arloa / Hezkuntza arloa / Ohitura Osasuntsuen Programa komunitarioko Talde motorra.

3.Esku hartze eremua: Zaintza, erantzunkidetasuna, eta kontziliazioa.

1.IILDO ESTRATEGIKOA

HERRITARREN ONGIZATEA ETA BIZI-KALITATEA, ZAINZAREN ETIKA GARATUZ, ETA EMAKUMEEK ETA GIZONEK LANA, FAMILIA ETA NORBERAREN BIZITZA ERANTZUNKIDETASUNEZ BATERATUZ

2. Programa: ***Udalerrriaren lan-plangintza zaintzaren etika eta eginkizunak erantzunkidetasunez bateratzea sustatzeko.***

Programaren helburua:

Udalak diseinaturiko lan-plangintza espezifikoko bat garatzea, udalerriko eragile sozial eta ekonomikoekin batera, zaintzaren etika eta eginkizunak erantzunkidetasunez bateratzea sustatzeko.

Jarduketak:

- a) Ohitura Osasuntsuen Programaren barne egin izan den lanketaren jarraipena –Erantzunkidetasunerako estrategia gehiago eta hobeak bultzatuz-. **I.MAILA**
- b) Genero berdintasunari dagokionez, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko eta Osasun etxeko lehen arretako taldeentzako, zaintzaren etika eta erantzunkidetasunaren inguruko **formakuntza** jarduerak. **II. MAILA**
- c) Osasun etxeko lehen arretako eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen zerbitzuengandik **sentsibilizazio jarduerak** egin, erantzunkidetasuna, zaintzaren etika balore sozial moduan, eta kontziliazio arduratsu banatua, pertsona erabiltzaileei bideratuta. **I.MAILA**
- d) **Emakume** zaintzaileekiko sentsibilizazioa, erantzunkidetasunaren inguruan, existitzen den gehiegizko kargarengatik. **II. MAILA**
- e) Genero berdintasunera bideratutako **balore aldaketarako sentsibilizazio ekintzak**, zaintzaren etika balore sozial gisa, eta herritarren arteko kontziliazio erantzunkideduna, orokorrean. **I.MAILA**

Adierazleak:

- Ohitura Osasuntsuen Programan egindako lanketarekin jarraitzeko ekintza lerro proposamenak.

- Urtero ematen diren formakuntza kopurua, parte hartzen duten pertsonak sailkaturik, zerbitzu, arlo eta sexuari dagokionez.
- Zaintzaren etika garatzeko, lehen mailako arreta zerbitzuetatik erantzunkidetasunarekiko martxan jartzen diren ekintza kopurua eta mota.
- Erantzunkidetasunarekiko eta gehiegizko karga emozionalari aurrea hartzearekiko, emakumeen artean martxan jarritako ekintza kopurua eta mota.
- Udalerrian, erantzunkidetasunezko kontziliazioa sustatzeko diseinatutako ekintzetan parte hartzen duten pertsona kopurua eta sexua.

Arlo arduraduna: Berdintasun arloa / Gizarte Ongizate arloa / Ohitura Osasuntsuen Programa komunitarioko Talde motorra.

3.Esku hartze eremua: Zaintza, erantzunkidetasuna, eta kontziliazioa.

2. ILDO ESTRATEGIKOA

DENBORAK, ESPAZIOAK ETA ZAINZAK KUDEATZEKO EREDU BERRIAK UDALEAN

1. Programa: **Jendea zaintzeko lanen kudeaketa udalerriko jardunean.**

Programaren helburua:

Udal baliabide eta zerbitzuak garatu eta egokitzea zaintzaren balioa aitortzeko eta eginkizunak erantzunkidetasunez batera daitezen errazteko.

Jarduketak:

- a) Informazioa eta **kontziliaziorako errekurtsoen kudeaketa**. I. MAILA
- b) **Babes eta arnas-hartze familiar zerbitzuak** sustatzea. II. MAILA
- c) Kobertura zabaltzeko aukeraren balorazioa eta lehen mailako **zerbitzuen ordutegien malgutasuna**. II. MAILA
- d) **Babestutako Gizarte Enplegu Programan** sartzean dauden emakumeen kontziliaziorako neurrien txertaketa. II. MAILA
- e) Pertsonen **mugimendu eta autonomia** erraztuko duten zerbitzu eta errekurtsoen diseinu eta martxan jartzea, eremu publiko, garraio publiko eta herriartekoa, planifikazio urbanistikoa eta etxebizitza eremuak artikulatzeko era berriak sortuz. III. MAILA

Adierazleak:

- Zenbat eta zein motatako ekintzak egiten diren, herritarrei, existitzen diren kontziliazio errekurtsoen berri emateko.
- Zenbat eta zein motatako errekurtsu edo zerbitzuak moldatzen edo martxan jartzen diren, udalerrian zaintzaren kudeaketa erraztu ahal izateko.
- Zenbat eta zein motatako kontziliazio neurriak sortzen diren, Babestutako Gizarte Enpleguko onuradunei zuzenduta.
- Zerbitzu edo errekurtsu bakoitzeko udal aurrekontua.
- Martxan jarritako zerbitzu edo baliabideetatik zuzenean onuradun diren pertsona kopurua, sexua eta adina.
- Zerbitzu publiko eta planifikazio urbanistikoetan, mugitzeko eta autonomia zailtasunak ageri diren txostena idatzia egotea.

Arlo arduraduna: Berdintasun arloa / Gizarte Ongizate arloa / Gizarte Zerbitzuak
/ Ohitura Osasuntsuen Programa komunitarioko Talde motorra.

4. Esku hartze eremua: Emakumeen ahalduntzea, parte hartze soziopolitiko eta balioen aldatzea.

1. ILDO ESTRATEGIKOA:

EMAKUMEEN HERRITARTASUN OSOA NORBERAREN AHALDUNTZEAREN BITARTEZ.

1. Programa: **Emakumeen ahalduntze pertsonala.**

Programaren helburua:

Bideak sortzea emakumeengan ongitu eta/edo garatzeko hala autoestimua, autonomia, eskubideak izateko eskubidearen kontzientzia, nola norberaren gaitasunak, bakoitzari bere izaera eta munduan egoteko modua zilegitzeko lagunduko diotenak.

Jarduketak:

- a) Udalerriko emakumeen **autoestimua** eta **autonomia** garatzeko jarduketaren diseinua. **I.MAILA**
- b) Emakumeetan egindako **nork bere burua zaintzearen** lanketaren jarraipena, *Nik neuk balio dudalako (Porque yo lo valgo)* taldearen bitartez, beste taldeetara zabaltzeko aukera emanez. **I.MAILA**
- c) **Ahalduntze eskola** bat sortzea, ahalduntze kurtso eta tailer berariazkoak. **II.MAILA**
- d) **Informazioa sortzea** udalerriko emakumeak jabetu daitezzen zer-nolako eragina duten beraiengan genero desberdintasun eta genero bazterkeriek. **II. MAILA**

Adierazleak:

- Zenbat eta zer motatako jarduera egin diren Berriozarko emakumeen ahalduntze pertsonala indartzeko.
- Zenbat emakumek hartu duen parte jarduketa horietan, adina adierazita eta udalerrian bizi diren emakume guztien zer portzentaia den zehaztuta.
- Zenbat emakumek hartu duen parte nork bere zaintzaren inguruko jarduketan, adina adierazita eta udalerrian bizi diren emakume guztien zer portzentaia den zehaztuta.

- Ahalduntze eskola bat sortua izatea, eta bertan martxan jartzen diren ekintza kopurua eta mota.
- Genero ezberdintasun eta diskriminazioak ikustaraztera bideratuta dauden publikazio kopurua.

Arlo arduraduna: Berdintasun arloa.

4. Esku hartze eremua: Emakumeen ahalduntzea, parte hartze soziopolitiko eta balioen aldaketa.

1. ILDO ESTRATEGIKOA:

EMAKUMEEN HERRITARTASUN OSOA NORBERAREN AHALDUNTZEAREN BITARTEZ.

2. Programa: **Emakumeen ahalduntze kolektiboa eta generokoa.**

Programaren helburua:

Bideak sortzea udalerriko emakumeek oro har duten egoera eta posizioa hobetzeko, bereziki halako eremu jakin batzuetan non nabarmenagoak diren genero desberdintasun eta -bereizkeriak.

Jarduketak:

Gizarteratzearen arloan eta autonomia garapenean:

- a) Emakume eta gizonen erantsitako estereotipo eta paper tradizionaletatik aske dauden irizpideen txertaketa, **Babeseko Gizarte Enplegu Programetako edukiak** diseinatzeko momentuan **II. MAILA**
- b) **Udaleko edozein arlok sustaturiko formakuntza ekintzetan**, berdintasun, genero ikuspegi eta ahalduntzearen inguruko saio bat edo gehiago txertatzea, Udaleko Berdintasun arloko emakumeendako arrera integraleko taldeko hiru teknikarietatik, kasu bakoitzean aproposena kontsideratzen denaren esku hartzearekin. **II. MAILA**

Kultura, aisialdi eta kirolaren arloan:

- c) **Sentsibilizazio ekintzak** burutu, edozein motatako kirolak sexu zehatz batekiko lotura ez egiteko, mezu, argazki eta irudien bitartez, etab. **II. MAILA**
- d) **Argazki datu-base bat** sortzea, estereotipo sexistetatik aske, kirolen tematikan, genero baldintzapenaren dinamika kirolean hautsi ahal izateko bidean. **II. MAILA**
- e) **Etengabeko formakuntzaren** txertaketa monitore kirolariekin eta monitoretza femeninoarekin formakuntza espezifiko egitea norberak duen exigentzia eta besteekiko duena lantzeko. **I. MAILA**
- f) **Emakumeen partaidetza** sustatzeko bideratutako proiektua martxan jartzea, errepresentazio baxuagoa duen kultura, aisialdi eta kirol arloetan, eta

programazioa Berriozarko emakumeen beharretara eta espero dutenera moldatzea. **III.MAILA**

- g) Lan-mahai bat martxan jarri eta sustatzea, jai arlo edo zinegotzigoarekin batera, udalerriko jai nagusien programazioan eta izaera bereziko datetan, genero ikuspuntua txertatu ahal izateko, emakumeen eskubideen bindikaziorako. **I.MAILA**

Errekonozimendu sozialaren arloan:

- h) Berriozarko **kaleen, plazen eta eraikinen izenen inguruan ikerketa** bat egitea, udal ikonografiari ere erreparatuz, eta aldatzeko aukera baloratzea, udalerriko bizitza sozial, kultural eta/edo ekonomikorako ekarpenak egin dituzten emakumeen izenak jarri ahal izateko. **II.MAILA**
- i) **Udalerriko emakumeen** ekarpen eta jakintzen errekonozimendua eta ikustaraztea, eredu izan diren beste emakume batzuk ere kontuan izanik, tradizionalki maskulinoak izan diren eremu edo lanak egin dituztelako, eta ahalmentze prozesu pertsonalak indartzen lagundu dezaketelako. **II.MAILA**
- j) Liburutegiko genero tematikadun **liburu zerrendaren** azterketa eta datu-base baten sorketa, zeinetan genero, feminismo, ikerketa soziologiko, emakumeen kontrako indarkeria, maskulinitateak, etabarreko bibliografia jendarteratu daiteken. **I.MAILA**

Emakumeen jarduera ekonomiko eta enpleguaren arloan:

- k) Nafarroako Enplegu Zerbitzuko estatistiketan oinarrituriko **txosten** bat sortzea, enpleguaren egoerari genero ikuspegitik erreparatuz. **II.MAILA**
- l) Berriozarren kokatutako **enpresa eta entitate pribatuetan berdintasunerako planen** sorketaren sustapena, planen sorketa hori Nafarroako Gobernuak, IGE-k, eta INAI-k sustaturiko prozedimendua jarraituz. **II.MAILA**
- m) Emakumeen **jarduera ekonomikoa eta enpleguarekin** harremanaturiko **emakumeen sare edo elkarteak** sustatzea. **II.MAILA**
- n) **Genero arraila edo ezberdintasun digitala** gutxitzeko jarduerak martxan jartzea, hau da, informazio eta komunikaziorako teknologien (ordenagailua, interneta) erabilerara sarrera ez duten edo erabiltzen ez dakitenekiko, eta badakitenekiko, desoreka gutxitzea; lehenengoak gehiengoan emakumeak izanik. **NIVEL II**

Adierazleak:**Gizarteratzearen arloan eta autonomia garapenean:**

- ESP programan parte hartzen duten pertsonen dituzten postu guztiak aurrera eramanez izateko funtzioak eta lanak aztertzen dituen txostena egina egotea, eta aztertzea zein modutan emakume edo gizonen bete ditzaketen.
- Zenbat eta zein motatako ahaldundutze saioak eman izan diren **udalean**.

Kultura, aisialdi eta kirolaren arloan:

- Zenbat eta zein motatako sentsibilizazio jarduerak burutu diren kirolaren arloan, estereotipoetatik aske dauden irudien bitartez.
- Genero estereotipoetatik aske dauden irudien datu-basea sortua izatea.
- Zenbat formakuntza ordu urteko eman izan zaizkien kirol monitoreei eta zehazki monitoretza femeninoari, sexuaren arabera.
- Formakuntza plan egonkor bat sortua izana, berdintasunaren inguruko oinarriko formakuntza jarduerekin, talde femenino, maskulino edo misto bat entrenatuko duten pertsona guztiak jasotzea.
- Emakumeen errepresentazio baxuagoa dutela identifikatuta dauden kultura, aisialdi eta kirol barne eremuetan, beren partaidetza sustatzeko martxan jarritako jarduerak kopurua.
- Genero ikuspegia jai programazioan txertatzeko sortutako lan saioa.

Errekonozimendu sozialaren arloan:

- Emakume eta gizonen izena duten eraikin, plaza eta kaleen izen guztiak txosten bat publikatuta izatea, eta aldaketak egiteko irizpideak, emakumeen ekarpenak ikustarazteko.
- Udalerrian eredu izan diren emakumeak ikustarazten dituen txosten-ikerketak.
- Genero tematika duten liburuekin egindako zerrenden txostena, eta tematika horrekin egindako datu-basea.

Emakumeen jarduera ekonomiko eta enpleguaren arloan:

- Udalerrian enplegu femeninoarekiko dagoen egoeraren inguruko txostena eginda izatea.
- Udalerrian kokaturiko zenbat enpresek jaso izan duten berdintasun planen burutzeari buruzko informazioa.
- Jarduera ekonomikoarekin erlazionaturiko gaiak lantzeko interesa duten udalerriko emakume enpresaria eta langileekin, datu-basea sortuta izatea.
- Zenbat eta zein motatako, prestakuntza digitala garatuta ez duten emakumeei bideratutako alfabetizazio digital formakuntza jarduera egin izan diren.

Arlo arduradunak: Berdintasun arloa / Kirol arloa / Kultura arloa / Euskara arloa / eta Gaztedi arloa

4. Esku hartze eremua: Emakumeen ahalduntzea, parte hartze soziopolitiko eta balioen aldatzea.

1. ILDO ESTRATEGIKOA:

EMAKUMEEN HERRITARTASUN OSOA NORBERAREN AHALDUNTZEAREN BITARTEZ.

3. Programa: **Emakumeen ahalduntzea eta parte-hartze sozial eta politikoa.**

Programaren helburuak:

- Kondizioak sortzea emakumeak, beren elkarten bitartez, eskubide osoko solaskide soziopolitikoak eta herritarrak izan daitezen.
- Emakumeak elkartu daitezen eta/edo elkartegintza feminista sustatzea udalerrian.
- Handitzea emakumeen partaidetza eta presentzia udalerrian garrantzi eta eragin berezia duten guneetan, emakumeen herritartasun osoa garatzeko bidean.

Jarduketak:

- a) Berriozarko **elkarteetan erabaki hartzaile diren taldeetan** emakumeek duten partaidetza kopuruaren inguruko **ikerketa** burutzea, eta errepresentazio maila eskasa dagoela kontsideratuz gero, neurriak proposatzea. **I.MAILA**
- b) Berriozarko enpresa edo entitate publikoetan **erabakiak hartzea inplikatzeko duten postuetan** dauden emakumeen azterketa eta zabalketa. **II.MAILA**
- c) Udalerriko **elkarreei egindako aholkularitza**, genero ikuspegia, emakume eta gizonen berdintasunarekin zehazki zerikusia duten jarduerak eta ekintzen garapenean txertatu ahal izateko. **I.MAILA**
- d) Beren jardueratan berdintasuna barneratzen duten udalerriko emakumeen elkarte eta besteei, diru-laguntza deialdia egitea.
- e) **Kultura ezberdinetako emakumeen arteko topaketa** sustapena. **I.MAILA**
- f) Berriozarren kultura feministaren garapenean lagunduko duen **emakumeak elkartu daitezen** sustatzea. **I. MAILA**

Adierazleak:

- Berdintasunerako Batzordea sortuta izatea.
- Zenbat eta zer motatako jarduketak dauden udalerriko elkarteek Berdintasun Batzordean parte hartu dezaten sustatzeko.

- Zenbat eta zer motatako jarduera dauden udalerriko elkarteetan erabaki hartzaile diren taldeetan emakumeen presentzia eta partaidetza sustatzeko.
- Zenbat eta zer motatako jarduera dauden, enpresetan zuzendaritza postuetan, partaidetza politikoan, toki-gobernuan edo elkarte edo toki-entitateetan, erabakitze postuetan dauden emakumeak ikustaraztera bideratuta.
- Udaletik eskainitako aholkularitzari esker, elkarteek garatutako genero ikuspegia barneratzen duten jarduera kopurua.
- Diru-laguntza deialdiaren barne, zenbat eta zer motatako genero-ikuspegidun proiektuek jaso izan duten laguntza.
- Beste kulturetako emakumeen partaidetza soziala sustatzen duen jarduera kopurua.
- Zenbat eta zein motatako jarduera dauden kultura feministaren ikuspuntutik, emakumeak elkartzea sustatzen.

Arlo arduraduna: Berdintasun arloa

4. Esku hartze eremua: Emakumeen ahalduntzea, parte hartze soziopolitiko eta balioen aldaketa.

2.ILDO ESTRATEGIKOA

EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREN BALIO SOZIALA, PATRIARKATUAREN BALIO SOZIALAK ERALDATUZ

1.Programa: **Genero estereotipoak eta norbanakoei esleitzen zaizkien errolak sexuaren arabera.**

Programaren helburua:

Berriozarren balioen aldaketa sustatzea, norbanakoei sexuaren arabera esleitzen zaizkien errol eta estereotipoak deuseztatzeko balio duten jarduketan bitartez.

Jarduketak:

Hezitzaileen eremuan:

- Udalerrian lan egiten duten hezitzaile guztiei zuzendutako **formakuntza plana, urtean bitan**, hezkidetzaren aspektu ezberdinak formatu monografikoan (ikastetxeak, musika eskola, ludoteka, haurtzaindegia, Gaztegunea) landuz. **I.MAILA**

Ikastetxeen eremuan:

- Urteroko **hezkidetzaren programen** txertaketa ikastetxeen planifikazioan. **I.MAILA**
- **Barne Berdintasun Batzordeak** sortu ikastetxeetan, horietan genero ikuspegia landu ahal izateko. **I.MAILA**
- **Ikastetxeetako eremu ez formalean** (patioa, jantokia...) estereotipoak eta errolak lantzeko sentsibilizaziozko jarduerak burutu. **I.MAILA**
- **Martxoak 8, azaroak 25, irailak 23, ekainak 28 eta urriak 15** egunetan landuko diren unitate didaktikoak sortzea, zentroko eta gelako programazioetan txertatuz. **I.MAILA**

Gaztediaren eremuan:

- Emakumei eta gizonei **esleitzen zaizkien estereotipo eta errol ezberdinen deuseztatzea**, herritar gazteengan zuzendutako jarduerak burutzuz. **I.MAILA**
- **Nerabeen** formakuntza, liskarren aurreko **elkarrizketazko** konponbideei dagokienez, eta genero berdintasunarekin konprometituagoak dauden maskulinitate eredu berrien sustapena, eremu formaletatik nahiz ez formaletatik ere. **I.MAILA**
- Berdintasun arloak sustatzen dituen jarduera guztietan Gaztegunea inplikatzeko eta bi arloen arteko jarduera proposamen berriak sortzea. **I.MAILA**

LGBT taldearen eremuan:

- LGBT taldearekiko errespetuzko jarrera eta estigma eza sustatzea, gizarteratzea eta diskriminazio eza mesedetzen duten jardueren bitartez. **I.MAILA**

Herritarren eremuan, orokorrean:

- Genero berdintasunarekin konprometituagoa dagoen, **beste maskulinitate eredu** baten errekonozimendu eta legitimitateari bideratutako jarduerak burutzea udalerrian bizi diren pertsonen artean. **II.MAILA**
- **Tailer, hitzaldi edo beste sentsibilizazio ekintza irekiak** burutzea edozein motatako publikoari bideratuta, berdintasunaren inguruan eta kolektibo ezberdinen beharretara moldatutako iraupenarekin. **I.MAILA**

Adierazleak:

Hezitzaileen eremuan:

- Formakuntza beharren plan bat eta hezkidetzari dagokionez udalerriko pertsona hezitzaileen artean hezkuntza programa eginda izatea.

Ikastetxeen eremuan:

- Zenbat hezkidetzako jarduerak garatu diren eta ikasleri onuraduna, sexuaren arabera banakatuta.
- Urtero egin izan diren Barne Berdintasun Batzorde bilera kopurua, partaideen hezkuntza maila eta sexuaren arabera banakatuta.

- Zenbat eta zer motatako sentsibilizazio jarduera egin diren eremu ez formaletan eta onuradun ikasleak sexuaren arabera banakatuta.
- Emakumeekin erlazionaturiko egun tematikoen lanketa egiteko unitate didaktikoak sortuak izatea.

Gaztediaren eremuan:

- Nerabeei zuzendutako zenbat jarduera burutu izan diren maskulinitate eredu berrien inguruan eta formakuntza jaso duten pertsonak sexuaren arabera banakatuta.
- Gaztediari zuzendutako zenbat eta zer motatako jarduera burutu izan diren errol eta estereotipoekin erlazionaturik, onuradunak sexuaren arabera banakatuta.
- Zenbat eta zer motatako jarduera sustatu izan diren berdintasun arlotik, Gaztegunek parte hartzen duelarik.
- Berdintasun arloa eta Gaztegunearen artean aurrera eramandako programak.

LGTB taldearen eremuan:

- Zenbat eta zer motatako jarduerak burutu diren LGTB taldeko pertsonak ikustarazi eta errekonozimendu soziala emateko.

Herritarren eremuan, orokorrean:

- Genero berdintasunarekin konprometituagoa dagoen maskulinitate eredu berriaren lanketara bideratzen diren jarduera kopurua, pertsona onuradunak sexuaren arabera.
- Zenbat eta zer motatako jarduerak martxan jarri diren harreman osasuntsuak lantzeko eta nor bere zaintza egiteko, pertsona helduekin, onuradun pertsonak sexuaren arabera.
- Zenbat eta zer motatako sentsibilizazio jarduera egin diren herritarrei orokorrean zuzenduta eta parte hartu duten pertsonak sexuaren arabera.

Arlo arduraduna: Berdintasun arloa / Hezkuntza arloa / Gaztedi arloa

6. MARTXAN JARRI, JARRAIPENA ETA EBALUAKETA EGITEKO SISTEMA

Berdintasunerako III Plan honen kudeaketa, ondorengo BERDINTASUN UDAL EGITURETATIK burutuko da, Berdintasun Teknikariarengandik koordinatuta.

- **Berdintasun Batzarra** maila politikoan (Berdintasun Zinegotzigoa), teknikoan (Berdintasun teknikaria), eta sozialean (Berdintasunean interesa ipinita lan egiten duten elkarte eta tokiko kolektiboak) partaidetza duten pertsonak osatzen dute. III.Planaz geroztik, tokiko elkarteen partaidetza handiagoa sustatzearen asmoa dago.

BERDINTASUN EGITURA BERRIAK:

- Berdintasunerako **Arloen arteko Batzordea** sortuko da III.Planarekin batera, teknikarien presentziaz, udaleko arlo guztiek parte hartuko duena.

Berdintasun Teknikariak koordinatuko ditu aipatutako berdintasun bi organoak. Teknikariaren funtzioen barruan, Berdintasun Planaren ezarpen, jarraipen eta ebaluazioan talde motorra izanik dituzten funtzioetan, organoei laguntza eskaintzea du funtzio nagusia.

Organo bakoitzaren funtzioak hurrengoak izango dira:

ARLOEN ARTEKO Batzordea, Berdintasun Planaren martxan jartzearen arduraduna da, Berdintasun Teknikariak urtero lantzen duen programazioan oinarriturik.

Berdintasun Batzordea, Berdintasun Planaren martxan jartzea sustatzeaz arduraduna da, urteroko programazioaz informatua izan eta ekarpenak egiteaz ere, jarraipena eta ebaluazioa egitearekin bat.

Bere aldetik, helburu espezifikoak eta bere jarduketa neurriak betetzearen arduradun izango dira, dokumentu honetan ezarritako udal arloak.

Hilero –udaran izan ezik- Berdintasun Batzordeak bilerak egingo ditu, proposamenak egin eta programazioaz, jarraipenaz eta/edo ebaluazioaz informatzeko.

Aipatutako bileratan, beharrezkoa kontsideratzen den pertsonen parte hartuko dute gainera, Berdintasun Planaren barne sartzen diren neurri zehatzak abian jarriko dituzten arduradunak izateagatik.

Egutegia Berdintasun arloan ezarriko da eta Batzordeen deialdia, gutxienez, izan baino 48 ordu lehenago egin behar da. Bileren egutegia, udalaren politikaren arabera ezarriko da, udarako hilabeteak kenduta, hileroko batzordea izanik.

Emakumeen partaidetza ziurtatuta dago Berdintasun Batzordean Emakumeen Elkarteak barneraturik badaude.

Bi organoak osatzen dituzten pertsonekin, berdintasunaren inguruko **formakuntza prozesu jarraitua** burutuko da.

Berdintasun Arloko aurrekontua, udal aurrekontu osoaren gutxieneko %1-ekoa izango da.

Martxan jartzerako/programaziorako sistema

Urte bakoitzaren bukaeran burutuko da urteroko programazioa, bi prozesurekin batera koordinatuz; udal aurrekontuen elaborazioa eta urteroko Berdintasun Planaren jarraipena/ebaluazioa.

Dokumentu eraginkor bat sortuko da, zeinetan urtean zehar garatuko diren helburuak eta jarduerak bilduko diren, arloak eta pertsona arduradunak, inplikatuak izango diren eragile sozialak, kronograma, eta aurrera eramateko jardueretara lotutako aurrekontua.

Jarraipenerako sistema

Programazio dokumentuaren ezarpen maila ezagutzeko prozesua da, existitzen diren arrakasta eta/edo zailtasunen inguruan hausnartu ahal izateko, eta kasua ematekotan, beharrezkoak diren aldaketak egin.

Jarraipena sei hilabetero egingo da, arduradunak diren udal arloek *Neurrien Jarraipen Fitxan* (1.Eranskinan atxikituta) betetako informazioaren bitartez.

Emaitzen betetzearen ebaluaziorako sistema

Planifikatutakoa zein neurritan bete izan den, eta zein neurritan eman izan diren Planean ezarritako helburuetan aurrerapausoak ezagutzeko prozesua da.

Ebaluazioa urtean bitan egingo da, *Neurrien Ebaluazio Fitxetan* udaleko arlo arduradunek informazioa betetzearen bidez, betetzeko adierazleen eta emaitza adierazleen egoeraren inguruko datuak bildurik (1. Eranskinean atxikituta).

Era berean, bakarkako elkarrizketak, taldeko elkarrizketak eta herritarrei egindako inkestak bezalako beste teknikak erabiliko dira, Diagnostikoko hasierako egoerari dagokionez, eman izan den eboluzioa, burututako programazioa, jardueren antolamendua, onarpen maila eta aurreikusitako emaitzen lorpen maila aztertzeke asmoz.

7. ERANSKINAK

1.Eranskina.-Neurrien Jarraipen Fitxak													
Arloak	Helburuak	Neurrien egoera			neurriak	Neurriaren egoera	neurriak	Neurriaren egoera	neurriak	Neurriaren egoera	neurriak	Neurriaren egoera	neurriak
		guztiz											
		guztiz	partzialki	nulua									
Ardatza													
	1.Helburua				1.1.Neurria		1.2.Neurria						
	2.Helburua				2.1.Neurria		2.2.Neurria						
	3.Helburua				3.1.Neurria		3.2.Neurria						
	4.Helburua				4.1.Neurria		4.2.Neurria						
guztira		0	0	0	0								
Ardatza													
	1. Helburua				1.1.Neurria		1.2.Neurria						
	2.Helburua				2.1.Neurria		2.2.Neurria						
	3.Helburua				3.1.Neurria		3.2.Neurria						
	4.Helburua				4.1.Neurria		4.2.Neurria						
	7.Helburua				7.1.Neurria		7.2.Neurria						
guztira		0	0	0	0								
Ardatza													
	1.Helburua				1.1.Neurria		1.2.Neurria						
	2.Helburua				2.1.Neurria		2.2.Neurria						
	3.Helburua				3.1.Neurria		3.2.Neurria						
	4.Helburua				4.1.Neurria		4.2.Neurria						

2.Eranskina.-Neurrien Ebaluazio Fitxak

I. BLOKEA. NEURRIAREN KOKAPEN ETA DESKRIBAPENA	
Arloa:	
Helburua:	
II. BLOKEA. NEURRIARI LOTUTAKO OINARRIZKO ELEMENTUEN DESKRIBAPENA	
Enuntziatua	
Deskripzioa: (Ekintzaren deskribapena, oinarrizko zenbait alderdi kontsideratuz: bere garapena faseetan, kontsideratu beharreko lan-tresnak, bere xedea, eta abar).	
Sailak eta pertsona arduradunak (Sail edota zerbitzu arduraduna/k eta ekintza inplementatzeko pertsona arduradunen izenak identifikatu).	
Esku-hartzearen izaera (hasiera eta amaiera duen edo urte osoan zehar garatzen den adierazi. Urtero edo aurten soilik garatzen den adierazi).	
Finalista/Jarraia	Urtero/Aurten
NEURRIAREN KONPLIMENDU-MAILA	
Gutziz	Partzialki
Nulua	
Ekintzaren hasiera-hilabetea eta aurreikusitako iraupena.	Ekintzaren hasiera-hilabetea eta iraupen erreala.
Urteko programazioaren dokumentuan neurria burutzeko estimatutako aurrekontua.	Neurria burutzeko erabilitako aurrekontua.
Itxarondako emaitzak (definitutako konplimendu-adierazleen arabera itxarondako kuantifikazioa)	Lortutako emaitzak (definitutako konplimendu-adierazleen jarraipenaren unean eskuratutako kuantifikazioa)
Adierazleak	
Ekintzaren inplementaziorako zailtasunak (Programatutakoa eta gauzatutakoaren arteko diferentzien kausak)	